

# HERRITARREN PARTE-HARTZE AGENDA 2024



# Aurkibidea

Eredua finkatzea eta hobetzea

Ildo estrategikoak

1. Ildoa: Parte-hartzea udalerriko ardatz estrategiko gisa
2. Ildoa: Herritarren parte-hartzerako bideak eta tresnak
3. Ildoa: Parte hartzeko kultura hobetzea: informazioa, komunikazioa eta prestakuntza
4. Ildoa: Herritarren parte-hartzearen kalitatea hobetzea
5. Ildoa: Planerako baliabideak

## Eredua finkatzea eta hobetzea

Bi legealdien zehar hainbat aldaketa egin ziren herritarren parte-hartzerako udal-ereduan eta proiektu berriak ere jarri genituen martxan. Horren ondoren, lau urteko legealdi berri bati ekingo diogu, eta gogor lan egingo dugu eredu hori finkatzeko, etengabeko hobekuntza- prozesu baten baitan.

Gobernu Irekia eta Gizarte Etxeen Sailak herritarren partaidetzarako eredu hori gainditu nahi du, eta sinergiak txertatu sailaren beste zerbitzuekin: Gizarte Etxeak eta Herritarren Arreta. Horrela, legegintzaldi honetako helburua da hiru zerbitzuen erronka, ardatz eta helburu komunak ezarriko dituen Sailaren Plana zehaztea eta diseinatzea.

2024an hasi eta 2025ean amaituko den urrats estrategiko horren aurretik, lan-agenda bat sortu da, 2024an egin beharreko ekintzak biltzen dituena.

Egoera berri horren aurrean, dokumentu honek zubi gisa balio du, bere lan-ildo zehatzekin, Sailaren Plan berria indarrean egon arte. Beraz, epe mugatu baterako helburu espezifikoak ezartzen dira.

Helburu garrantzitsuenen artean Udalak zenbait ekintza garatzea izango zen gaur egun dauden kanalen bitartez parte hartzen ez duten elkarteengana eta herritarren beste kolektibo batzuegana hurbiltzeko, kanal horiek daudela ez dakitelako edo ez parte hartzea erabaki dutelako. Horrela, Udalak horien arrazoiak eta proposamenak ezagutu ahal izango ditu eta, ahal den heinean, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak txertatu ahal izango ditu, planteatutako gaien inguruko ikuspegi desberdinak dituzten herritarren kolektibo gehiagok parte hartu ahal izateko.

Agenda honek 2023ko planaren eta hurrengo urteetarako garatu beharreko planaren arteko zubi izateko beharrari erantzuten dio, Gobernu Irekiaren eta Gizarte etxeen Sail osoaren erronkak eta helburuak ezartzeko.

# Ildo estrategikoak



## 1. ildo: Parte-hartzea udalerriko ardatz estrategiko gisa

Parte-hartzea ezinbestekoa da politika publikoen kalitatea hobetzeko, betiere pertsonak eta haien premiak eta interesak erdigunean jarriz.

Gero eta konplexuagoa eta anitzagoa den gizarte honetan behar-beharrezkoa da herritarrek aukera izan dezatela eragiten dieten gaien inguruan eragiteko, eztabaidatzeko, koproduzitzeko eta erabakitzeke. Herritarrek herri-administrazioei eskatzen diete gardentasun handiagoa erakutsi dezatela, baina, baita ere, entzunak izan daitezela. Udal-kudeaketan gehiago parte hartu ahal izatea eskatzen dute, eta horretarako, erantzunkidetasun handiagoa behar da.

Gainera, herritarren parte-hartzea zeharkako funtsezko elementu bat da; NBEren 2030erako strategiaren Garapen Iraunkorrerako Helburuetan dago (GIH), eta Udala bat dator helburu horiekin. «Bakea, Justizia eta Instituzio Sendoak» azpimarratu beharko genuke (16. GIH), bertan, herritarren parte-hartzea sustatzea proposatzen baita, erakunde eraginkorren eta gardenen tes- tuinguruan.

Hori dela eta, herritarren parte-hartzeak udal-gobernuaren ardatz estrategiko bat bihurtu behar du, gobernu-talde osoa barne hartuko duena. Halaber, denboran iraunkor bihurtuko duen adostasun zabal bat behar da udal-talde politiko desberdinen artean.

Apustu estrategiko horren garapenak aldaketa bat eragin du gobernatzeko moduan; izan ere, irekia, demokratikoa, gardena eta parte-hartzailea.

## Erabakitako jarduerak (I)

Herritarren parte-hartzerako lan agenda onartzea. Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen Sailaren Plana 2024an zehar egin eta 2025ean ezarriko den behin betiko plan baten zubi izango dena.

Udal-talde politiko guztiek ordezkari izango duten lantaldea kontsolidatu, jarraipena egiteko. Horretarako, ondorio eta proposamen guztiak jakinaraziko dira Ogasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordearen bitartez.

Udal-sail guztiek ordezkari izango duten lantalde teknikoa kontsolidatzea, Udalean herritarren parte-hartzearen sustapena eta zeharkakotasuna bermatzeko.

Talde politiko guztien eta herritarren ekarpenak jasoko dituen parte hartzeko agenda bat ezartzea. Agenda horrek honako gai hauek hartuko ditu barne, besteak beste:

Ordenantza Fiskalei, Tasei eta Prezio Publikoei buruzko herritarren arteko eztabaida (urtean behin).

Aurrekontuen Proiektuari buruzko herritarren arteko eztabaida (urtean behin).

Udaleko planen eta programen diseinua, jarraipena eta ebaluazioa.

Eta legegaldi honetarako gai zehatz bat, gutxienez, sail bakoitzaren aldetik.

## Erabakitako jarduerak (II)

Herritarrek parte hartzeko organoek egindako proposamen eta informazio-eskaera guztiei arazoituriko erantzun bat emateko gobernu-taldearen konpromisoa, gehenez ere hilabete bateko epean eta herritarrek ulertzeko moduan. Gizarte Kontseiluak egindako arauzko txostenek berariaz erantzungo zaie.

Informazio- eta komunikazio-ekintzak egitea, herritarrek Plana eta parte hartzeko kanalak eta erremintak ezagutu ditzaten, eta horiei parte hartzera gonbidatzeko.

Vitoria-Gasteiz Hobetuz programarako esparra-arautegia ebaluatzea.

Udal-gobernuak hizketakide gisa jardungo du beste herri-administrazio batzuekin, herritarrek parte hartzeko organoetan planteatutako gaiak bere eskumenak gainditzen dituztenean.

## 2. Ildoa: Herritarren parte-hartzerako bideak eta tresnak

Ildo honek garatzen ditu gaur egungo parte-hartzerako bideak sendotzeko eta horien funtzionamendu egokirako tresnak hornitzeko planteatzen ditugun prozesuak.

Oraindik ere elkarrekin eta herritarren kolektiboak dira herritarrek parte hartzeko eredu hori sostengatzen dutenak. Horien ahalegina eta dedikazioa eskertzeko modukoak dira, ezinbesteko lotura gisa jarduten baitute herritarren eta Udalaren artean, eta horrek erantzunkidetasuna errazten du.

Herritarrek organo eta prozesu parte-hartzaileetan banaka parte hartzeko aukera ere ematen du gaur egungo ereduak, eta helburu hori bere horretan mantenduko da legealdi honetan.

Kasu batean edo bestean, herritarrek herritarren partaidetza-organoen egunerokotasunean protagonismo handiagoa izan dezatela lortu nahi da, horien agenda eta jardueraren erritmoa garatuz. Era berean, horrek udal-politikan eragina izatea lortu nahi da, hirian bizi diren eta hiria partekatzen duten pertsonen premietara egokitutako ekintzen bitartez.



# Parte-hartzerako bideak (I)

## HERRITARREN POSTONTZIA

Tresna hau sustatzea, herritarrek parte hartzeko beste bide bat delako. Horrela, herritarrek postontzi hori erabili ahal izango dute Udalari proposamenak egiteko eta herritarrek parte hartzeko organoetako eztabaida irekietan eta egingo diren bestelako prozesu parte-hartzaileetan parte hartzeko.

## HERRITARREK PARTE HARTZEKO ORGANOA: AUZOGUNEAK, ELKARGUNEAK ETA GIZARTE KONTSEILUA

Herritarrek parte hartzeko organo bakoitzak erreferentziazko gobernu-taldeko zinegotzi bat du, Gizarte Kontseiluaren kasuan salbu. Izan ere, azken hori arduratuko da jo-rratutako gaien jarraipena egiteaz eta Udalaren erantzunak aurkezteaz.

Organoek funtzionamendurako gidaliburu bat dute. Horri esker, herritarrek uneoro jakin ahal izango dute zer egiten duten, nork parte har dezakeen, nola funtzionatzen duten edo zer jokabide-arau dituzten, besteak beste.

Zenbait tresna indartuko dira proposatutako gaien jarraipena egiteko, saioen balorazioa egiteko eta udal-politiketan duten eragina baloratzeko.

Zerbitzu osagarriak gaituko dira laguntza-premia desberdinak dituzten herritarrek (sentsorialak, fisikoak, adinekoen edo haurren zaintza...) parte hartu ahal izateko.

Gizarte Kontseilua arduratuko da bertan ordezkaturik dauden gainerako partaidetza-organoak koordinatzeaz.

## **Parte-hartzerako bideak (II)**

### **PARTE HARTZEKO PROZESUAK**

Bereziki garrantzitsuak diren udal-planak (Berdintasuna, Gazteria, HAPO, Mugikortasuna...) diseinatzeko eta ebaluatzeko orduan, prozesu parte-hartzaile bat egin beharko da. Horretarako, Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzuarekin koordinatuko dira.

Parte hartzeko agendaren bitartez, gobernu-taldeak legealdian zehar egingo diren partaidetza prozesuak jakinaraziko ditu. Talde politiko guztiekin egiaztatuko da.

### **HERRITARREN TXANDA**

Informazioa hobetuko da. Horrela, herritarrek behar bezala jakingo dute nola erabili herri- tarren txanda, batzordeetan nahiz udalbatzarretan.

### **VITORIA-GASTEIZ HOBETUZ PROGRAMA**

Programa honen bitartez, herritarrek proiektuak edo inbertsioak proposatu ahal izango dituzte. Era berean, bozketetan parte hartu ahal izango dute, aurkeztutako proposamenei lehentasuna emateko.

Programa honentzako esparru-araudiaren errebisio egitea.

Urteko partida espezifiko bat onartuko da programa honetarako, betiere Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen Saileko aurrekontuaren barnean.

Udalak hitzematzen du herritarrek aukeratutako proiektu guztiak gauzatuko dituela.

## Erabakitako jarduerak (I)

Organoei eta prozesu parte-hartzaileei buruzko informazioa bultzatzea:

Udalaren webgunea herritarrek parte hartzeko organoen premietara egokitzea informazioari eta kudeaketari dagokionez.

Parte hartzeko organoek planteatutako gaiek zer ibilbide duten jakinaraztea.

Herritarren postontzia auzoguneetan, elkarguneetan eta partaidetza-prozesuetan eztabaidatzen ari diren gaiekin lotzea, parte-hartze birtuala erraztuz.

Udal-informazioa egokitzen jarraitzea, argia eta erraza izan dadin.

Informazio- eta komunikazio-bideak dibertsifikatzea:

Gizarte-etxeak bultzatzea, informazioaren igorleak eta herritarren proposamen eta eskaeren hartzaileak diren heinean.

Udal-tresnak: muppiak, pantailak, web-orria...

Elkarteen etxeak eta Materiala Mailegatzeko Zerbitzua.

BIZAN (Adineko pertsonentzako zentro soziokultural oihak).

Udalaren buletin digitalak erabiltzea.

Elkarreak.info indartzea.

Irratsaioetan parte hartzea.

Herritarrek parte hartzeko organoen jarduerari buruzko prentsa-oharrak ateratzea.

## Erabakitako jarduerak (II)

Udal-programa desberdinak diseinatzeko eta prestatzeko orduan kontuan hartuko diren kalitatezko prozesu parte-hartzaileak egin daitezela sustatzea eta erraztea, herritarren parte-hartzerako agendaren bitartez koordinatuz.

Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzua udal-sailentzako beste tresna bat izango da herritarrek parte hartzeko organoak kudeatzeko eta prozesu parte-hartzaileak diseinatzeko orduan.

Gasteizko Udalak moduan partaidetza politiko eta Gobernu Irekiaren sareetan hartzea, hain zuzen, Kaleidos eta OGP Euskadin.

### **3. Ildoa: Parte hartzeko kultura hobetzea: informazioa, komunikazioa eta prestakuntza**

Ildo honen edukiak honako balio hauetan oinarritutako parte-hartzeko kultura sustatu nahi du eremu politikoan, teknikoan eta herritarren artean: elkartasuna; konpromiso soziala; gobernu onaren erantzunkidetasuna; eskubideekiko errespetua eta herritarren ekintza aktiboa, eskubideekin eta zereginekin lotuta.

#### **Erabakitako jarduerak**

##### **Informazioa**

Parte hartzeko organoetan ordezkari gutxien dituzten kolektibo eta sektoreekin harremanetan jartzea, informazioa eskeiniz eta parte harztera animatuz, betiere bere premiak eta interesak kontutan harturik.

##### **Komunikazioa**

Udalaren barruan herritarrek parte harzteko dauden jarduera, nide eta prozesu guztiei buruzko informazio garbia eta errazaeskaintzea, hari dagokion balioa emateko

##### **Prestakuntza**

"Herritarren Eskola Irekia" sustatzea eta haren programa gainerako eskola eta udal zerbitzuekin koordinatzea.

Politika, teknika eta herritar mailako prestakuntza-ekintzetarako ekarpena handitzea, 2025ean hasiko den kontratu berri baten bidez.

## Erabakitako jarduerak (II)

Kasu bakoitzean egokitzen jotzen diren erremintak erabiliz, parte hartzeko organoetan ordezkari gutxien dituzten kolektiboekin eta sektoreekin (gazteak, pertsona migratzaileak...) harremanetan jartzea, horiei informazioa eskaintzeko eta parte hartzera animatzeko, betiere haien premiak eta interesak kontuan hartuta.

Udalaren barruan herritarrek parte hartzeko dauden jarduerak, bide eta prozesu guztiei buruzko informazio garbia eta erraza eskaintzea, hari dagokion balioa emateko.

## 4. Ildoa: Herritarren parte-hartzearen kalitatea hobetzea

### Erabakitako jarduerak

Urtero, organo bakoitzaren ebaluaziorako saio monografiko bat egitea, Gizarte Kontseiluan adostutako irizpideak kontuan hartuta.

Urteko partaidetza-memoria egitea. Bertan, honako gai hauei buruzko datuak eta informazio interesgarria jasoko da: herritarrek parte hartzeko organoak, parte hartzeko prozesuak, partaidetza-organoek aurkeztutako mozioak, intzidentzia eta lotutako programak.

Gizarte Kontseiluak betetzen duen eginkizuna sendotzea, udal-organoen sistema koordinatzeko eta Herritarren Parte-hartzerako Planaren jarraipenerako organoa den heinean.

Egiten diren prozesu parte-hartzaile guztietan, onartu diren eta onartu ez diren (eta horretarako arrazoiak) proposamenen emaitzak itzultzea.

## 5. Ildoa: Planerako baliabideak

Plan honi beharrezkoak eta egokiak diren baliabideak eskaini behar zaizkio planteatzen diren programak eta ekintzak ezarri ahal izateko. Horretarako, ikuspegi orokor bat behar da, betiere erabili behar diren baliabideak ahalik eta gehien koordinatzeko, bateratzeko eta errentagarri egiteko helburuarekin.

Une honetan Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzuari dagokio funtzio hori. Dena den, azpimarratu behar da parte-hartzeak zeharkako lan-ildo bat izan behar duela Udalean, eta beraz, ez da Zerbitzu hori izango gai honen ardura duen bakarra. Gainerako sailek ere ardura hori partekatu behar dute, beste udal-plan batzuetan gertatzen den moduan: Berdintasuna, Euskara, Gazteria eta abar.

### Laguntza baliabideak

Laguntza ematea elkarte eta hiritar kolektibo ezberdinei baliabide hauen bidez:

#### **Informazioa eta aholkularitza**

Asoziazionismoari eta herritarren parte-hartzeari buruzko informazioa izan nahi duten elkarteentzako eta herritarrentzako INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA zerbitzua sustatzea.

Gizarte etxeetan difusio kanpaina bat bultzatzea Elkargune eta Auzogunetan partaidetza sustatzeko



## **Abian diren programak**

Gizarte-etxeetan informazio- eta hedapen-kanpaina bat egitea, elkarguneetan eta auzo-guneetan parte hartzeko.

Honako programa hauek indartzea:

ELKARTEAK.INFO, herritarrei, banaka nahiz elkarteetan bilduta, gaur egun dauden elkarteetan eta kolektiboen berri ematea, eta horien programak eta proposamenak jakinaraztea. Plataforma hau aldiari behin eguneratu beharko da.

ASTEKO IRRATSAIOA. Bertan, herritarren parte-hartzearekin lotuta dauden udal-esparruko albiste garrantzitsuenak jakinaraziko dira.

### **ELKARTEEN ETXEAK**

Lokala egoitza sozial gisa uzteko deialdia mantentzea, gaur egun dauden espazioak optimizatuz.

Aldian behin erabiltzeko aukera hedatzen eta difusioa egiten jarraitzea.

Espazio berrien premiak eta horiek lortzeko aukera aztertzea, programa areagotu ahal izateko. Beharrezkotzat jotzen diren mantentze-lanak egitea.

### **IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALA MAILEGUAN UZTEKO ZERBITZUA**

Materialak eta espazioa elkarteetan gaur egungo premietara egokitzea.

### **PROGRAMENTZAKO DIRULAGUNTZAK**

Auzo-elkarte eta auzo-federazioentzako dirulaguntzen eta lokalen deialdia.

Kolektiboek eta elkarteek sustatutako herritarren parte-hartzerako proiektuak. Programa horren berri ematea.

## Giza baliabideak

Garrantzitsua da udal-sailek giza baliabideak izan ditzatela herritarren parte-hartzearekin lotutako ekintzak garatu ahal izateko, baita horretarako denbora nahikoa izan dezatela ere.

Bestalde, gobernu-taldeko zinegotziek herritarrek parte hartzeko organoen funtzionamendua erraztu behar dute, baita prozesu eta erreminta parte-hartzaileen garapena ere.

Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzuak honako laguntza hau eskainiko die udal sailei:

Prozesu parte-hartzaile bakoitzean talde eragilea osatzen duten sailen eta zerbitzuen sail arteko koordinazioa.

Prestakuntza.

Aholkularitza eta laguntza prozesu parte-hartzaileak diseinatzeko eta gauzatzeko orduan, egin edo zehaztuko den erreferentziazko gidaliburuaren arabera.

Aholkularitza eta laguntza herritarrek parte hartzeko organoetako idazkaritzei.

Gainera, zuzenean kudeatuko dira honako hauen idazkaritzak:

Gizarte Kontseilua.

Herritarren Parte-hartzerako Elkargunea.

## **Baliabide teknikoak**

Herritarren postontzia sustatzea, parte hartzeko erreminta gisa.

Herritarrek egindako proposamenen jarraipena egitea.

Hedapen eta sentsibilizazio-kanpainak egiten jarraitzea.

# Kronograma

	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
<b>1. ILDOA.</b> Parte-hartzea udalerriko ardatz estrategikoa	Herritarren lan agenda 2024 onartzea											
	Udal-talde politiko guztien lan taldea sustatzea											
	Lantalde teknikoa sustatzen jarraitzea											
	Parte hartzeko agenda eraikitzen jarraitzea											
	Planaren Informazio- eta komunikazio-ekintzak	Urte osoan zehar garatzekoa										

		URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE	
<b>2. ILDOA.</b> <b>Herritarren parte-hartzera-ko bideak eta tresnak</b>	HERRITARREN POSTONTZIA sustatzen jarraitzea													
	Proposatutako gaien jarraipena egiteko, saioak baloratzeko eta udal-politiken eragina ezagutzeko erremintak													
	Parte-hartzea errazteko zerbitzu osagarriak													
	Vitoria-Gasteiz Hobetuz (MVGH) programarako esparru-arautegiaren ebaluazioa													
	VGH programarako urteko partida zehatza	☑												
	Berritzea eta kanal berriak bilatzea	Urte osoan zehar garatzekoa												
	Organoei eta prozesu parte-hartzaileei buruzko informazioa hobetzea	Urte osoan zehar garatzekoa												
	Organoetan parte hartzen ez duten herritarrei eta gizarte-kolektiboek galdeketa bat egitea													
	Udalaren webgunea herritarrek parte hartzeko organoen premietara egokitzen jarraitzea	Urte osoan zehar garatzekoa												
	Parte hartzeko organoek planteatutako gaiak zer ibilbide duten berariaz jakinaraztea													
	Informazio- eta komunikazio-bideak dibertsifikatzea	Urte osoan zehar garatzekoa												
	Kalitatezko prozesu parte-hartzaileak egin daitezela sustatzea eta erraztea	Urte osoan zehar garatzekoa												
	Gasteizko Udalak sareetan parte hartzea, Kaleidos eta OGP Euskadin	Urte osoan zehar garatzekoa												

		URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
3. ILDOA. Parte hartzeko kul- tura hobetzea: informazioa, komunikazioa eta prestakun-tza	HEI «Herritertasunerako Eskola Irekia» sustatzen jarraitzea	Urte osoan zehar garatzekoa											
	Partaidetza-organoetan ordezkari gutxien dituzten kolektiboekin eta sektoreekin (gazteak, pertsona migratzaileak...) harremanetan jartzea	Urte osoan zehar garatzekoa											
	Jarduera guztiei buruzko informazioa eskaintzea	Urte osoan zehar garatzekoa											
		URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
4. ILDOA. Herritarren parte-hartzearen kalitatea hobetzea	Ebaluazioaren plangintzan lan egitea	Urte osoan zehar garatzekoa											
	Ebaluazio saio monografikoak burutzea												
		URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
5. ILDOA. Baliabideak	Kontratuen analisisa, berritzapena eta lanketa	Urte osoan zehar garatzekoa											
	Giza baliabideen hausnarketa												
	Baliabide teknikoaren hausnarketa	Urte osoan zehar garatzekoa											